

## IRAKASKUNTZA HIBRIDOA: ZAMA ERAMANEZINA IRAKASLEENTZAT

Martxoko itxialdia bat-batean eta prestatuta ez geundela etorri zitzaigun. Egun batetik bestera telehezkuntzan murgildu behar izan genuen. Hasieran ez zen erraza izan, aurrez aurreko irakaskuntzan erraz egiten direnak zail bihurtzen dira eta urrutikoan. Irakasleek beren kasa, lan ordutegitik kanpo eta beren azpiegitura teknologikoekin egin behar izan zuten beharrezko murgilketa: ikastaroak egin, metodologia eta materialak egokitu... Horretaz gain, ordutegiak mugariki gabe hedatu ziren maiz. Telelana ez zegoen arauturik Hezkuntzan eta, oraindik ere, araudi hori egiteko dago.

Ikasturte honen hasieran, Hezkuntza Departamentuak agindu zien ikastetxeei ikasleentzari artatze ez-presentzialaren plangintzak sortzeko, inolako jarraibide eta baliabiderik eskaini gabe beste behin ere. Hori horrela, ikastetxe ugari pentsatu zuten ikasle konfinatuak telematikoki artatzea zela modua irakasleak gehiago ez zamatzeko, eta horrekin, irakaskuntza hibridoa hedatuz joan da. Ondorioz, irakasle asko behartuta egon dira zuzeneko bideo emanaldiak egitera gelatik bertatik, aurrez aurreko klase batean.

STEILAS eta ELA sindikatuok irakaskuntza hibridoaren arazoak salatu nahi ditugu:

- **Eskola emateko moduak desberdinak dira klase presentzialetan eta telematikoen.** Eskola bat ematea ez da edukiak transmititzea bakarrik; izan ere, etengabe egiaztatu behar da ikasleek ongi ulertzen dutela eta material egokiaz baliatzen direla; ikusi egin behar dira haien erreakzioak, elkarrekin nolatan diharduten, eta abar. Beraz, faktore horiek aurrez aurreko ikasleentzari eta telematikoen artean aldi berean kontrolatzea lan zama handitzea eta hezkuntza-kalitatearen murriztea dakarte.
- **Irudiaren babesa ez da bermatzen.**
- **Datuen babesa ez da bermatzen.** Hezkuntza Departamentuak aspaldidanik bultzatu du Googleko aplikazioen erabilera ikastetxeetan eta etxeetan (chromebook-en bidez). Googlek etengabe gurtzatzen ditu ikasleek dituzten kontuetako datuak (gmail, YouTube eta beste batzuk) bisitatzen dituzten webguneekin eta G Suite aplikazioetatik lortutako datuekin, eta, beraz, informazio ugari pilatzen du ikasleei eta haien familiei buruz, beren publizitate negozioa eta hirugarrenei datuak saltzeko negozioa elikatzen.

Egoera honen aurrean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen diogu:

- **Bizitzen ari garen salbuespenezko pandemia aldi honetarako soilik, teleirakaskuntza arautzeko egiazko negoziazio prozesua abian jar dezala.**
- **Artatze telematikoen baldintzak negoziatu ditzagula** (nori, noiz, nola...).
- **Irakasle gehiago kontratatu ditzala ikasle konfinatuei arreta emateko;** izan ere, irakaskuntza hibridoak lan-karga handiagoa jartzen die irakasleei, eta lehendik ere aski estresatuta dabilta Covid-19aren pandemiak sortutako egoeran inbertsiorik egin ez izanak eragindako baldintzengatik.
- **Hezkuntza Departamentuak bere plataforma telematikoa eta publikoa sor dezala,** software librean oinarrituta. Plataforma horiek erabiltzen ari dira beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako herrialde gehienetan. Era berean, irakasleak prestatu beharko lirakeke plataforma hori eta plataforma horretarako berariaz garatutako aplikazioak erabiltzeko.
- **Teleirakaskuntza garatzeko azpiegitura teknologiko egokia eman diezaiela ikastetxe guztiei,** software librea erabiltzen duten gailu elektronikoekin, Nafarroako zenbait ikastetxetan egiten ari diren bezala.

**STEILASen eta ELAn aurrez-aurreko hezkuntzaren alde eta langileen lan baldintzak bermatzearen alde gogor jarraituko dugu lanean.**

Iruñean, 2020-11-27



## DOCENCIA HÍBRIDA: UNA PESADA CARGA PARA EL PROFESORADO

El confinamiento de marzo nos vino de repente y sin estar preparados. De un día para otro tuvimos que dedicarnos a la teledocencia. Al principio no fue fácil, porque lo que se hace fácilmente en la enseñanza presencial se vuelve difícil en la telemática. El profesorado tuvo que realizar la inmersión necesaria por su cuenta, fuera del horario laboral y con sus infraestructuras tecnológicas: realizar cursos, adaptar la metodología y los materiales... Además, los horarios se extendieron con frecuencia sin límite alguno. El teletrabajo no estaba regulado en Educación y sigue siendo una de las asignaturas pendientes a día de hoy.

A principios de este curso, el Departamento de Educación encargó a los centros educativos la creación de planes de atención no presencial para el alumnado, una vez más sin ofrecer ninguna pauta ni recurso. Así, en numerosos centros educativos se pensó que atender telemáticamente al alumnado confinados era la forma de no cargar más al profesorado, con lo que se ha ido extendiendo la enseñanza híbrida. En consecuencia, muchos docentes se han visto obligados a realizar retransmisiones de vídeo en directo desde el aula en una clase presencial.

Los sindicatos STEILAS y ELA queremos denunciar los problemas de la enseñanza híbrida:

- **La forma de impartir las clases es diferente en las clases presenciales y en las telemáticas.** Una clase no consiste tan solo en una transmisión de contenidos, ya que hay que comprobar continuamente si el alumnado entiende bien, si dispone del material adecuado, hay que observar sus reacciones, cómo interactúa, etc., por lo que el control simultáneo de esos factores en el alumnado presencial y telemático provoca un aumento de la carga de trabajo y una disminución de la calidad educativa.
- **No se garantiza la protección de la imagen.**
- **No se garantiza la protección de datos.** El Departamento de Educación ha impulsado desde hace años el uso de aplicaciones de Google en colegios y domicilios (a través de chromebooks). Google cruza continuamente los datos de las cuentas que tiene el alumnado (gmail, YouTube y otras) con las webs que se ven y con los datos obtenidos de las aplicaciones de G Suite, por lo que acumula una cantidad ingente de información sobre el alumnado y sus familias, para nutrir su negocio de publicidad y el de venta de datos a terceros.

Ante esta situación, solicitamos al Departamento de Educación:

- **Que ponga en marcha un verdadero proceso de negociación para regular la teledocencia, solo para este periodo de pandemia.**
- **Que negocie las condiciones de la atención telemática** (a quién, cuándo, cómo...).
- **Que contrate a más profesorado para atender al alumnado confinado**, ya que la docencia híbrida genera todavía mayor sobrecarga laboral en un profesorado ya sometido a mucho estrés por las condiciones derivadas de la falta de inversión ante la pandemia de Covid-19.
- **Que el Departamento de Educación cree una plataforma telemática propia y pública**, basada en el software libre. Estas plataformas ya existen en otras comunidades autónomas y en los estados desarrollados. Asimismo, se debería formar al profesorado en el uso de esta plataforma y de aplicaciones desarrolladas específicamente para esta.
- **Que se dote a todos los centros de la infraestructura tecnológica adecuada para desarrollar la teledocencia**, con dispositivos electrónicos que usen software libre, tal y como ya se está realizando en varios centros educativos de Navarra.

**En STEILAS y ELA seguiremos trabajando por la educación presencial y por garantizar las condiciones laborales de los y las trabajadoras**

Pamplona-Iruñea, 27-11-2020

